

DURANGO. Maiatzetik abuztura bost urteera eratuko dabez, 14 urtetik 25 urte bitarteko gazteei bideratuta

Astialdia igaroteko urteerak egingo dabez gazteendako

‘Durango Abentura 2002’ programea Ur 2000k eroango dau



EGUNKARIA

Abenturazko kirolak deiturikoak praktikauko dabez urteeretan.

Aitziber Basauri |

Durango gazteei astialdia igaroteko alternatibea eskaini guran, *Durango Abentura 2002* programea jarriko dau martxan Udalak, Gaztedia Sailaren bitartez. Horretarako enpresea hartu barri dabe; UR 2000 ardura-tuko da egitaraua gidatzeaz. Ekimena abiatzeko, barriz, 26.994 bat euro inbertiduko dabez. Halantxe jakinarazo dau Pilar Ardanza alkateak.

Maiatzetik abuztura bitartean, asteburua igaroteko hiru urteera eratuko dabez. Horrezaz ganera, Pirineoetara astebeteko urteera antolatuta dabe; eta Frantziako Alpeetara hamar eguneko. *Durango Abentura 2002* ekimena 14 urtetik 25 urtera bitarteko gazteei zuzendutakoa da; halandabe, urteera bakotxa adin tarte zehatz bati bideratutakoa izango da.

Gazteek abenturazko kirolak praktiketako aukerea be izango dabe, Iñigo Kapelastegi Gaztedia Saileko zinegotziak adierazo dauenez. Izan be, besteak beste, rafting-a, bidezidorretatik ibilbideak, hatxarteko jaitisierak, hidrospeed-a, multiabentura edo eskalada eta piragismoa egingo dabez.

Ardanzak nabarmendu dauenez, «Durangon baegoan ardurera adin tarte horreetako gazte-

en astialdiari jagokonez. Ekimenagaz, bestelako kirol komunitarioak hartu-emonak zein ludikoak erakutsi gura deutseguz gazteei». Igaz be ahalegindu zan Udala holako ekimena abiatzen. «Ez genduan lortu, baina, gazteengana heltzea; berandu be ibilginan. Aurton, baina, lortuko dogulakoan gagoz; egitarau erakargarria eratu dogu», dino.

Udalak kostu osoaren %60a hartuko dau bere gain

Asteburuko urteeren kasuan, gazteek 36,060 euro ordaindu beharko dabez batzbesteko; ganerantzekoetan, 216,36 euro. Izan be, Udalak, ekintzaren kostu osoaren %60a hartuko dau bere gain. Behar dan materiala, aseguruak eta bidaia prezioaren barruan sartzen dira, Kapelestegik argitu dauenez.

Apirilaren 22tik aurrera emon leiteke izena Mikeldi GEKUI-ko bulegoetan. Era berean, jentearreko aurkezpena be egingo dabe. Asteburuko urteeran ganeakoa maiatzaren 2an emongo dabe, eta beste bidaia bien ganeakoa bagilaren 27an. «Ekimenak harrera ona izatea itxaroten dogu eta dagozan lekuak betetea. Horrek datorren urtean lekua zabaltzera animauko gaitu. Harrera onik ez badauka, barriz, gaia beste era baten planteatu beharko dogu», dino alkateak.

URTEERAK

Abenturazko kirolak egiteko aukerea

Maiatzetik abuztura, asteburupasak zein astebeteko urteerak eratuko dabez Durango gazteendako.

MURILLO DE GALLEGO (HUESKA). Maiatzak 18-19. Adina: 18-25 urte. Rafting eta hatxarteko jaitisiera.

EBRO GARAIA (KANTABRIA). Bagilak 29-30. Adina: 14-17 urte. Rafting eta hidrospeed.

URDAIBAI. Garagarrikak 20-21. Adina: 14-17 urte. Kanoa, multiabentura eta orientazioa.

PIRINEOAK. Abuztuaren 2tik 8ra. Adina: 18-25 urte. Rafting, multiabentura, hidrospeed, bidezidorretatik ibilaldiak, eskalada ikastaroak, mendi ibilbidea, hatxarteko jaitisiera eta bisitaldiak.

VERDON KAÑOI HANDIA (FRANTZIako ALPEAK). Garagarrikaren 21etik 30era. Adina: 18-25 urte. Rafting, eskalada eta piragismo ikastaroak, ibilbideak, hatxarteko jaitisiera, bisitak eta Randonee Aquatique.



Amorebieta-Etxanoko Udala

RAGARKIA

BOROA AUZOAN KAMIOIEN APARKAMENDURAKO PROIEKTU ALDATUAREN HASIERAKO ONARPENAREN INGURUKO ESPEDIENTEA.

Kimetz E. Munitxak idatzitako Boroa auzoan Kamioien Aparkamendurako proiektu aldatua, Gobernu Batzordeak 2002ko apirilaren 9an egindako bilkuran hasiera batean onartua, jendaurrean agertarazten da hamabost (15) egunez, epea “Bizkaiko Aldizkari Ofizialean” argitaratzen denetik zenbatzen hasiko da, egoki diren alegazio edo erreklamazioak aurkez ditzaten.

Aipatu proiektua behin betiko onartutzat joko da, erabaki berri baten beharrik gabe, jendaurrean ikusgai dagoen epean ez bada alegaziorik aurkezten.

Espedientea Udal Bulego Teknikoan aurkitzen da interesatuen eskura, ordutegia 10etatik 14etara izanik.

Amorebieta-Etxanoko, 2002ko apirilaren 9an. ALKATEAK. Izenp.: Miren Begoñe Azarfoza.

Kultur Astea eratu dau Izar Gaztea 3. adineko alkarteak

A. B. |

Udabarriko VI. Kultur Astea eratu dau Durango 3. Adineko Izar Gaztea Alkarteak. Irekiera ekitaldia izango da astelehenean 18:00etan; bertan, Udal ordezkariak eta Al-
dundiko Gizarte Ekintza Saileko eta BBK-ko ordezkariak hartuko dabe parte. Ondoren, ohorezko aureskua egingo dau Kriskitinek; eta Bergarako San Xosepe Abesbatzak saioa eskainiko dau.

Ekintzak Nagusien Egoitzan izango dira. Erlajazioa-

ren ganean berba egingo dabe martitzenean, 18:00etan, M^a Luisa Visaren eskutik; eta 18:30ean Soñua taldeko soinu-joleek jardungo dabe. Gitarra-joleak be egongo dira.

Bartolome Ertzilla Musika Eskolako ikasleak izango dira eguaztenean; eguenean, Barakaldoko Tuna izango da, eta Chi-Kung-aren gane-ko berbaldea be bai. Bari-
kuan, Izar Gaztea abesbatzak eskainiko dau saioa; eta domekan meza abestua, Jesuiten elizan. Anaiarteko bazkaria be izango da.

ABADIÑO

Herritarrek ‘Apirileko ferixea’ ospatuko dabe gaur Zelaietan

A. B. |

Apirileko ferixea eratu dabe gaurko Zelaietako tabernari-
ek. Finito poteoa egingo dabe eguerdian; eta, 19:00etan, moztorra soinean daukiela, *El Rosio* kalejirea egingo dabe. Eta ostean, bar-
rriro be finito poteoa —Andaluziako produktuen dastaketa be egongo da—. Mal de Ojo rumba taldeak girotu-
ko dau gaua, 23:00etan.

AGENDEA

ERMUA

Kontzertua: Oin’ast, Intolerance eta Escuela de odio musika taldeak gaur Gaztetxean, 21:00etan.

ZORNOTZA

Aparketea galazota: 48. Udabarriko Klasika dala-eta aparketea galazoko dabe hainbat kaletan. Gudari kalean —N-634 errepideagaz bat egiten dauen unetik trenbidera— gaurko 10:00etatik domekako 16:00etara; Txikerran eta Txiki-Otaegin, gaurko 16:00etatik domekako 16:00ak arte; eta, Karmen kalean —N-634 errepideagaz lotzen dan unetik Konbenio kalera arte— domekan, 06:00etatik 15:00ak arte. Txiki-Otaegi kaletik autoak igarotzea be galazoko dabe domekan, 06:00etatik 16:00etara.



AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA

IRAGARKIA

Martxoaren 6ko 329/2.002 zk.dun Alkatetza Dekretu bidez, ondoko erabakia hartu zen ERABAKIA:

LEHENENGOA: Kimera Errekako Egokitze Proiektuaren lanak egitea beharrezkotzat jotzea, aurkeztutako proiektu teknikoari jarraiki, eragindako higiezinak okupatzeko beharra eta erabilgarritasun publikoko adierazpena barne izanik.

BIGARRENA: Ondasun eta eskubideen zerrenda zehatz eta indibidualizatua onartzea, baita Kimera Errekako Egokitze Proiektuaren lanak eragindako jabeen zerrenda, jarraikoa izanik:

FINKA ZENBAKIA	KATASTRO DATUAK		TITULARRAREN IZENA ETA HRLBIDEA	ERAGINA			IZABRA
	POLIGON OA	PARTZEL A		DESJABE TUTAKO AZALERA	BETIKO ZORTASUNA	ALDI BATERAKO OKUPAZIOA	
1	26	73	HERMANDAD DE SAN MIGUEL SAN ANTONIO AUZOAK 48340-AMOREBIETA-ETXANOKO	161	169	274	Belardia
2	26	73	HERMANDAD DE SAN MIGUEL SAN ANTONIO AUZOAK 48340-AMOREBIETA-ETXANOKO	1.022	911	2.738	Belardia
3	26	6	VALERIANO MARTITEGUI SAN ANTONIO AUZOAK 48340-AMOREBIETA-ETXANOKO	140	96	145	Labore
4	26	6	PILAR ALDEKOA MARTITEGUI SAN ANTONIO AUZOAK 48340-AMOREBIETA-ETXANOKO	359	186	261	Labore
5	26	6	ENRIQUE BLASCO AIZPURUAJEN JABARITZALEK BEGOÑA MARTITEGUI ETAB LAZARO BLASCO MARTITEGUI EGOJENKALE, 4-2 48340-DURANGO	6	62	146	Labore
6	26	7	MARICHU TRAKULIS REMONTERRA K/SARREOA, 30-3 B 48300-DURANGO	162	144	242	Labore
7	26	8	MARTIN URIGUEN ZARATE SAN ANTONIO AUZOAK 48340-AMOREBIETA-ETXANOKO	16	27	45	Labore
8	26	9	MARTIN URIGUEN ZARATE SAN ANTONIO AUZOAK 48340-AMOREBIETA-ETXANOKO	57	41	68	Labore

HIRUGARRENA: Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunetako epean Udaletxeko iragarki oholean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Interesatuak banan-banan jakinaraziz, desjabetzapenak eragindako eskubideen titularrak argitaratutako zerrendan izan daitezkeen akatsak zuzentzeko balio duten datu guztiak eman ditzaten. Era berean, ondasun edo eskubideak okupatzera edo xedatzera uka daitezke, beti ere edukia edo forma dela eta, behar bezala arrazoituz.

Ondasunen deskribapen material eta legezkoan akatsak zuzentzeko edozein pertsona natural edo juridiko aurkeztu ahal izango da egoki deritzon aurrekari edo erreferentziak alegatuz.

LAUGARRENA: Erreklamaziorik egongo ez balitz, ondasunen zerrenda behin betiko onartutzat joko da eta desjabetzapen espedientea hasia. Interesatuak prezio bat proposatu ahal izango dute alderdi bien adostasunarekin eskuratzea posible egingo lukeena Udaleko aurrekontuaren kontura. Lurzoraren Jaurpideari eta Balarazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legearen xedapenak irizpide gisa erabiliz.

BOSGARRENA: Euskal Herriko Lurraldearen Antolaketarako maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 26,1-f) art.ari xedatutakoaren arabera, Eusko Jaurintzari eskatzea Kimera Errekako Egokitze Proiektuaren jardueraren premiatasuna adieraztea, baita eragindako ondasunak okupatzera ere.

Amorebieta-Etxanoko, 2002ko martxoaren 12an. ALKATEAK. Izp.: Miren Begoñe Azarfoza.